

## SARRERA

Kukutxeztula *Bordetella pertussis* izeneko bazilo gram (-) batek sortutako gaixotasun infekzioso oso kutsakorra da.

Hasiera nahiko motela izaten da, katarro-moduko fase batekin: ez tul narri-tagarria, pixkanaka paroxistiko bihurtzen dena, bat-bi asteren buruan normalean, eta beste hilabete-pare bat inguru irauten duena. Paroxismoak edo ez tul-kolpeak, ez tulaldi errepikatuak eta gogorak izaten dira; horietako sail bakoitzak kontu ezin ahala ez tulaldi hartzen ditu, tartean arnas hartzerik gabe eta jarraian arnas estridore bat ager daiteke, tonu altukoa, oso berezi eta ezaugarria. Paroxismoak sarritan muki-jario argi eta itsaskorrek ahotik botaz amaitzen dira, eta askotan baita gorakoekin ere. 6 hilabetez azpiko bularreko hurrek, adolezenteek eta helduek sarritan ez dute edukitzen estridoreen edo ez tul paroxistikoaren koadro tipiko hori.

Gaixotasun endemikoa da, ohizkoa haurtzaroan, hasierako adinetan batez ere, eta aldian behin kukutxeztul-broteak agertzen dira. Azken urteotan gaixotasunaren intzidentzia EAEn asko jaitsi dela ikusi da, eta 1986ko 1.673 kasu haie-tatik (100.000 biztanleko tasa 78koa zen) 6 kasura, soilik, pasatu gara 1998. urtean (0,3/100.000 bizt.); 1999an gaixotasunaren brote bat erregistratu zen, 87 kasurekin (tasa: 4/100.000 bizt.) eta 2000. urtean, azkenik, 40 kasura jaitsi da (1,9 kasu 100.000 biztanleko).

## TXERTAKETAREN INDIKAZIOAK

Kukutxeztularen kontrako txertoa EAeko haurren txertaketa-egutegian sar-tua dago gaur egun, 5 dosirekin: 2, 4, 6 eta 18 hilabeteekin, eta 6 urterekin, dif-teriaren eta tetanosaren kontrako txertoekin batera.

## ERAGINKORTASUNA ETA IMMUNOGENIZITATEA

Kukutxeztularen aurkako zelula osoen txertoa 30eko hamarkadan garatu zen: formalinarekin inaktibatutako *Bordetella pertussis*-en zelulen suspentsio

batek osatzen du txertoa. Ikerketek bermatzen dutenez Difteria-Tetanosa-Kukutxeztula, zelula osoen txertoak (DTPe motakoak) prebentzio-maila eraginkorra eskaintzen du kukutxeztularen aurrean (% 70-90ekoa).

Difteria-Tetanosa-Kukutxeztul azelularra txertoak (DTPa) *Bordetella Pertussis*-en osagai inaktibatuak eta purifikatuak dauzka. Kukutxeztularen txerto azelular desberdinak daude merkatuan, osagai eta kontzentrazio desberdinekin. 1993. urtetik hona DTParekin egindako ikerketek % 71-84 bitartean kokatzen dute txertoaren eraginkortasuna.

## ADMINISTRAZIOA ETA TXERTAKETA-PAUTAK

EAEn indarrean dagoen txertaketa-egutegiak 5 dosi adierazten ditu kukutxeztularen aurka: 2, 4, 6 eta 18 hilabeterekin eta bosgarren dosi bat, 6 urterekin.

DTPe txertoarekin hasitako pauta DTPa-rekin osatu daiteke. Baina inoiz egin behar ez dena, eta lehen txertaketan batez ere, zera da: txertaketa-pauta beraren barruan DTPa txertoaren marka desberdinak aldatuz eta txandatuz joatea; hau da, gaur egun, txerto hauen fitxa teknikoak adierazten duenez kukutxeztularen kontrako txertaketa ez da gomendatzen gaur egun modu errutinarioan 6 urtetik gorakoetan. Dena den, berriki komertzializatu den txerto batek aukera ematen du oroitzapeneko txertaketa egiteko (ez ordea immunizazio primario bezala erabiltzeko) difteria, tetanos eta kukutxeztul azelularren kontra (DTPa). 10 urtetik gorako pertsonetan dago indikatua. DTPa txertoarekin hasitako txertaketa-pauta bat txerto-tipo eta marka berarekin amaitu behar da.

## ESKURA DAUDEN TXERTOAK

Gaur egun ez dago *Bordetella pertussis*-en kontrako antigeno bakarrarekin prestatutako txertorik.

<i>Txertoa</i>	<i>Izen komertziala</i>	<i>Laborategia</i>
<b>DTPe</b>	ANATOXAL Di Te Per TRIVACUNA DTP MERIEUX	Berna Leti Aventis Pasteur MSD
<b>DTPa</b>	INFANRIX	GlaxoSmithKline
<b>DTPe-HB</b>	TRITANRIX	GlaxoSmithKline
<b>DTPa-HB</b>	INFANRIX-HB	GlaxoSmithKline
<b>DTPa-Hib</b>	INFANRIX-Hib	GlaxoSmithKline
<b>DTPe-Hib</b>	TETRAC-HIB	Aventis Pasteur MSD
<b>DTPa-Hib-VPI</b>	PENTAVAC	Aventis Pasteur MSD
<b>DTPa-Hib-VPI-HB</b>	HEXAVAC	Aventis Pasteur MSD
<b>DTPa-HB-VPI+Hib</b>	INFANRIX-IPV-Hib	GlaxoSmithKline
<b>DTPa-Hib-VPI-HB</b>	INFANRIX-HEXA	GlaxoSmithKline

## 10 urtetik gorako pertsonentzat:

<i>Txertoa</i>	<i>Izen komertziala</i>	<i>Laborategia</i>
dTpa	BOOSTRIX	GlaxoSmithKline

### KONTRAKO ERREAKZIOAK

Maila lokalekoak dira batez ere: gorritzea, hantura edo inflamazioa, mina edo noduluak agertzea injekzio-gunean, batik bat 5. dosiaren ondotik.

Erreakzio garrantzitsuagoak ere gerta daitezke, esaterako: sukarra edo negar iraunkorra. Kasu arraroetan hipotoniako gertakariak deskribatu izan dira, edota baita *shock-like* eta konbultsioak ere.

Kontrako erreakzioak zelula osoen txertoarekin (DTPe) gehiago agertzen dira *pertussis* azelularrarekin (DTPa) baino.

### BESTE TXERTO BATZUEKIN BATERA ADMINISTRATZEA ETA INTERAKZIOAK

Merkatuan dauden konbinazio-mordoari begiraturaz ikus daitekeen bezala, *Bordetella pertussis*-aren kontrako txertoa beste txerto batzuekin batera administratzen da, dela txerto bikoitz bezala (DT eta Td), hirukoitz bezala (DTPe edo DTPa), edota baita bost edo sei antigenorekin ere. Txertaketa-egutegiaren barruan ematen denean, poliomieltis, B hepatitis, b motako *Haemophilus influenzae* eta C tipoko meningokokoaren kontrako txertoekin bat egiten du.

Kontrako erreakzioak usuagoak dira zelula osoen txertoarekin (DTPe), *pertussis* azelularrarekin baino (DTPa).

### KONTRAINDIKAZIOAK, ARRETA-NEURRIAK ETA INDIKAZIO BEREZIAK

Beste edozein txertorekin gertatzen den bezala, ez da eman behar aurreko dosiekin edo baita txertoaren edozein osagairekin erreakzio anafilaktikoaren aurrekariak daudenean, eta espezialistek balora dezaten bidaliko da.

Txertaketaren unean gaixotasun moderatu edota larriren bat egotea ere baloratu beharreko puntua da: otitisa edo goiko arnasbideetako infekzioa duten neska-mutikoak txertatzeko moduan daude.

Arreta-neurri bereziak hartu beharko dira, eta baita kukutxeztularen kontrako txertoaren hurrengo dosien administrazioa komeni den ala ez baloratu ere, baldin eta aurreko txertaketetan txertoa jarri eta ondorengo 48 orduen barruan, zeinu hauetakoren bat agertzen denean: 40,5 °C-tik gorako sukarra, beste justifikazio edo arrazoirik gabe; kolapsoa edo *shock-like* egoera; 3 ordu baino

gehiago iraun duen negarra; eta konbultsioak sukarrarekin edo gabe, txertoa jarri eta ondorengo hiru egunen barruan. Arreta-neurri hauek berdin-berdin balio dute DTPe txertoarentzat eta baita DTPa txertoarentzat ere.

## **TXERTOAREN BILTEGIRATZEA ETA ERABILTZEKO MODUA**

DTPe eta DTPa txertoak + 2 °C eta + 8 °C bitarteko tenperaturan mantendu behar dira etengabe.